

## Erebaneko komunikatua

2015eko maiatzaren 14an eta 15ean Erevanen bildutako ministroek harrotasunez aitortzen dute Bolonian aurrekari izan zituztenen ikuspegiaren haritik Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua sortu zela, non askotariko alderdi politiko, kultural eta ekonomikoak zeuzkaten 47 herrialdek aukera izango zuten lankidetzan jarduteko, helburuak partekatzeko eta, elkarrizketa ireki bati esker, konpromisoak lortzeko. Borondatezko bateratzearen aldeko eta hezkuntza-sistemak berritzeko prozesuak ezarri ziren, erantzukizun publikoan, askatasun akademikoan, autonomia instituzionalean eta osotasunarekiko konpromisoan oinarrituta.

Hori guztia zuzkidura ekonomiko publikoan oinarritzen da, eta graduen egitura komun bat finkatuz, printzipio eta prozesuak elkarrekin ulertuz eta partekatuz, kalitatea eta aitortza ziurtatuz eta tresna komun batzuk erabiliz ezartzen da.

Boloniako erreformei esker aurrera egin dugu ikasle eta egresatuei mugikortasuna erraztearren Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan, haien kualifikazioak eta ikasteko aldiak aitortuz. Ikasketa-programek egresatuen eskura jartzen dituzte ikasten jarraitzeko eta Europako lan-merkatuan sartzeko behar dituzten ezagutza, trebetasun eta konpetentziak. Erakundeak aktiboagoak dira nazioarteko testuinguruaren barruan. Ingurune akademikoek elkarlanean dihardute baterako ikerketa-programa eta irakaskuntzetan. Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua munduko beste eskualde batzuekin hitz egiten hasi da, lankidetzarako egitura-eredu bat ezarriz.

Nolanahi ere, egiturazko erreformen inplementazioa irregularra da, eta batzuetan tresnak ez dira behar bezala erabiltzen, edo azaletik zein modu burokratikoan erabiltzen dira. Hortaz, beharrezkoa da goi-mailako hezkuntzaren sistema hobetzen jarraitzea, eta komunitate akademikoak inplikatzera Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak eman dezakeen guztia eman dezan. Horretarako, lan egiteko konpromisoa hartu zen, eta lankidetzara bultzatzeko premia aitortu zen.

Gaur egun, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak zenbait erronkari egin behar die aurre: krisi ekonomiko eta soziala, langabezia-maila dramatikoak, marginalitatearen gorakada gazteen artean, aldaketa demografikoak, migrazio-eredu berriak, herrialdeen barruko eta herrialdeen arteko gatazkak, estremismoa eta erradikalizazioa. Bestetik, ikasle eta langileen mugikortasun handiagoa elkar ulertzearen mesedetan ere badoa. Jakintzaren eta teknologien garapen azkarrak, berriz, eragin handia du gizartean, eta gero eta zeresan handiagoa du goi-mailako hezkuntzaren eta ikerketaren eraldaketan.

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak funtsezko zeregina betetzen du erronka horietan, eta aukerak handitzen ditu Europarekiko kolaborazioaren eta trukearen bitartez, lortu nahi dituen helburu komunei esker eta planeta osoko bazkideen arteko elkarrizketa sortuz. Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren ikuspegia berritu behar da, eta haren egitura sendotu.

## Ikuspegi berri bat: gure lehentasunak

2020rako lortu nahi dugu Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren helburu komunak herrialde kide guztietan ezartzea, goi-mailako hezkuntzaren sistemen elkarren arteko konfiantza ziurtatzeko. Ildo beretik, ikasle eta egresatuen kualifikazioen aitortza automatizatu behar da, mugikortasuna errazteko; goi-mailako hezkuntza gizarte barne-hartzaileak eraikitzekeo lagungarri izatea lortu behar dugu, balio demokratiko eta giza eskubideetan oinarrituta; hezkuntza-aukerek Europako herritarren eskura jarri behar dituzte eskatzen zaizkien konpetentzia eta trebetasunak, berrikuntzatik eta enplegarritasunetik abiatuta.

Laguntza eta babesa emango zaie askatasun akademikoaren eskubideak baliatu nahi dituzten ikasle eta langileei, eta ordezkaritza bermatuko zaie eskubide osoko kide gisa, goi-mailako hezkuntzaren erakundeen gobernantzan. Goi-mailako hezkuntzaren erakundeei lagunduko zaie are ahalegin handiagoa egin dezaten kulturarteko elkar ulertzea, pentsamendu kritikoa, tolerantzia politiko eta erlijioso, genero-berdintasuna eta balio demokratiko eta zibilak sustatzeko, Europako herritartasun globala indartzeko eta gizarte barne-hartzaileen zimenduak bermatzeko. Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren eta Europako Ikerketa Esparruaren arteko loturak ere indartuko dira.

Datozen urteetarako honako helburu hauek bete nahi ditugu testuinguru berriaren barruan, helburu guztiei ere garrantzi bera emanez:

- Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren xede nagusia da **ikaskuntza eta irakaskuntzaren kalitatea eta garrantzia areagotzea**. Horretarako, goi-mailako hezkuntzaren erakundeei eta erakunde horietako langileei bultzatu eta lagunduko zaie berrikuntza pedagogikoa susta dezaten ikasleentzako ikaskuntza-inguruneetan, eta teknologia digitalek ikaskuntza eta irakaskuntzarako ekar ditzaketen onurak guztiz ustia ditzaten. Irakaskuntzaren, ikaskuntzaren eta ikerketaren arteko loturak estutuko dira ikaskuntzaren maila guztietan, eta erakunde, irakasle eta ikasleei pizgarriak emango zaizkie sormena, berrikuntza eta ekintzailtza garatzeko jarduera gehiago antola ditzaten. Ikasketa-programek aukera eman behar dute ikasleek beren nahi pertsonalak eta gizartearen premiak betetzeko gaitasunak gara ditzaten ikaskuntza-jarduera eraginkorren bitartez, lortutako ikaskuntzaren emaitzen deskribapen gardenetan, lan-kargetan, ikaskuntza-ibilbide malguetan eta irakaskuntza- eta ebaluazio-metodologia egokiagoetan oinarrituta. Ezinbestekoa da irakaskuntzaren kalitatea aitortu eta babestea eta irakasleen konpetentziak hobetzeko aukerak ematea; areago, ikasleak eta beste hainbat bazkide komunitate akademikoaren eskubide osoko kide izango dira, curriculum diseinatu eta kalitatea ziurtatzeko lanetan parte-hartze aktiboa izan dezaten.
- Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren helburu nagusietako bat **egresatuen enplegarritasuna haien lan-bizitzan zehar sustatzea da**, garapen teknologikoen, eta enplegu-profil berriak eta lan- eta autoenplegu-aukera handiagoak agertzearen ondorioz etengabe aldatzen ari den lan-merkatuaren esparruan. Ziurtatu beharrean gaude prestakuntza-ziklo bakoitzaren amaieran graduatuak lan-merkatuan txertatzeko behar diren konpetentzien jabe

direla, horrek bakarrik ahalbidetuko dielako ondoren beren bitzta profesionalean beharko dituzten trebetasunak garatzea. Goi-mailako hezkuntzaren erakundeei lagunduko zaie helburu hori lortzeko hainbat neurri abian jarriz, esaterako, enplegatzaileekiko elkarrizketa indartuz, teoria eta praktikaren arteko orekari eutsiko dioten programak ezarriz, ekintzailtza eta ikasleen trebetasunen berrikuntza sustatuz eta ikasleen karrera profesionalen garapenaren jarraipena eginez. Ikasketen eta enpleguaren nazioarteko mugikortasuna sustatuko da, ikasleen kompetentzia multzoa eta enplegarritasun-aukerak zabaltzeko modu egokia den heinean.

- **Gure sistemak barne-hartzaileagoak izan daitezela lortzea da** Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren funtsezko helburuetako bat, immigrazioaren zein aldaketa demografikoen eraginez gure biztanleria dibertsifikatzen ari den heinean. Goi-mailako hezkuntzan parte-hartzea areagotzeko konpromisoa hartzen dugu, baita hainbat ikaslerentzako testuinguru egokietan ikasteko jarduerak antolatzen dituzten erakundeei laguntzeko konpromisoa ere, etengabe ikasteko esperientziak barne. Hainbat hezkuntza-sektoreren arteko iragazkortasuna eta antolamendua erraztuko da, goi-mailako hezkuntzaren dimentsio soziala nabarmenduko da, generoen arteko oreka hobetuko da eta sartzeko eta amaitzeko aukerak areagotuko dira (nazioarteko mugikortasuna barne), beharrea dauden inguruneetako ikasleentzat. Gatazka-eremuetan dauden ikasle eta irakasleentzako mugikortasuna erraztuko da, eremu horietako lan-mundura itzultzeko aukera emanaz egoerak hobera egiten duenean.
- Horrez gain, hezkuntzarako bidean dauden ikasleen mugikortasuna sustatzeko gogoia mahaigaineratu zen, Europako herritarren etorkizuneko belaunaldien hezkuntzan oso zeregin garrantzitsua betetzen dutela aintzat hartuta.
- **Egiturazko erreformen ezarpena** alde aurreko betekizuna da, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua sendotzeko eta epe luzera begira haren arrakasta bermatzeko.
- Gradu eta kreditu-sistemen egitura komunak, kalitate-estandar eta -betekizun komunak, mugikortasunerako lankidetzeta eta baterako programa eta graduak dira Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren zutabeak.
- Atzerrian lortutako kredituak eta xede akademiko zein profesionalak aitortzeko eta alde aurreko ikaskuntzarako politika eraginkorragoak garatuko dira.
- Estatu-mailan konprometitutako erreformak erabat eta eraginkortasunez ezartzeko, erantzukizuna eta konpromisoa behar da politika eta komunitate akademikoak ebatzen dituztenen aldetik, eta inplikazio handiagoa interesdun guztien aldetik.
- Herrialde jakin batzuek erreforma horiek ez ezartzeak eragin negatiboa du Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren sinesgarritasunean, eta horregatik, txostenak dakartzaten herrialdeek, beren jarduerari buruzko neurri sinesgarriagoetan oinarrituta jardun behar dute. Elkarrizketa sustatzeko eta jardunbide egokiak elkartrukatzeko politiken bitartez, laguntza eskaini nahi zaie ezarritako helburuak betetzeko zailtasunak dauzkaten herrialdeei, aurrera jarraitzeko arnasa ematearren.
- .

**Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren gobernantzak eta lan-metodologiek erronka horiei aurre egiteko gai izan behar dute.** Boloniako Jarraipen Taldeari eskatzen zaio bere lan eta gobernantza metodoak berraztertu eta erraz ditzatela, eta, ildo horretan, Goi-mailako Hezkuntzan parte hartzen

duinak neurri handiagoan inplika daitezela, besteak beste, gure hurrengo topaketarako funtsezkoak diren konpromisoak ez ezartzearen gaia lantzeko proposamenak bidaliz.

Begi onez hartzen dugu Frantziak 2018an gure hurrengo bilera hartzeko eta, 2015eko uztailetik 2018ko ekainera bitarte, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren Idazkaritzaren ardura hartzeko hartu duen konpromisoa.

Ministerioek onartu zuten, halaber, Bielorrusiaren hautagaitza Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan sartzea, eta, zehazki, erreformak egiten hasteko erakutsi duen konpromisoa, Boloniako Prozesua abian jarri zenez geroztik 16 urte igaro direnean, bere goi-mailako hezkuntzaren sistema Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren sistemarekin bateragarria izan dadin. Horregatik guztiagatik Bielorrusiari ongietorria egin zaio, eta haien agintari eta interes-kideei elkarlanean jarduteko gogoia adierazi zaie, Boloniako Jarraipen Taldeak identifikatutako erreformak ezartzeko. Bielorrusia sartzeko ibilbide-orrian jaso dira erreforma horiek, eta ministerioek ibilbide-orria ikuskatuko dute 2018ko konferentziaren aurretik.

Azkenik, lantaldeek ezarpenari, egiturazko erreformei, mugikortasun eta nazioartekotzeari, dimentsio sozialari eta ikaskuntza jarraituari buruz egindako txostenak eta aitortza automatikorako bideak aurkitzeko taldeak egindako txostenak onartu direla jaso da. Eranskinean aipatutako neurriak hartu ziren, eta aukera hau aprobetxatu nahi da Boloniako Jarraipen Taldean parte hartzen duten kide eta kide aholku-emaile guztien garrantzia eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrurako lan-programari egiten dioten ekarpena nabarmentzeko.

## Eranskina

### I. Hartutako neurri politikoak

- Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan kalitatea ziurtatzeko estandar eta irizpideak.
- Kalitatea ziurtatzeko Europako ikuspegiarako baterako programak
- ECTS kredituen erabiltzailearen gida berrikusia, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren dokumentu ofiziala den heinean.

### II. Konpromisoak

- Ziklo laburreko kualifikazioak Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren kualifikazioen esparru orokorrean biltzea, Dublingo ziklo laburren kualifikazioarako espezifikazioetan oinarrituta eta ESGren kalitatea ziurtatuta, haren sistemen ziklo laburreko kualifikazioen aitortza aurreikus dadin kualifikazio horiek barne hartuta ez badaude ere;
- Enplegu publikorako betekizunek lehen zikloko egresatuen sarrera bidezkoa ahalbidetzen dutela ziurtatzea, eta enplegatzaileak animatzea goi-mailako hezkuntzaren kualifikazio guztiak behar bezala erabil ditzaten, lehen ziklokoak barne.
- Erakunde liderrei, ikasle izan daitezkeenei eta haien gurasoei, eta, azken batean, gizarteari, graduatuek lan-merkatuan dituzten ibilbide profesionalei buruzko egiazko informazio esanguratsua ematen zaiela ziurtatzea;
- Legeria nazionalak berrikustea Lisboako Aitortzarako konbentzioari erabat atxikitzeko, Boloniarako Idazkaritzari gogoeta horren berri emanez 2016 amaitu baino lehen, eta, 2017 amaitu baino lehen, Konbentzioaren Batzordeari txostenen azterketa bat eskatuz ENIC eta NARIC

sareekin elkarlanean. Konbentzioaren Batzordeak Konbentzioa ikusatzeko egindako lana jasoko da txosten horietan;

- Aldez aurreko ikaskuntzaren aitortzarako oztopoak kentzea goi-mailako hezkuntzaren programetan sartzeko aukerak errazteko, eta aldez aurreko ikaskuntza aitortzen duten titulazioak lortzeko aukera emanez, eta goi-mailako hezkuntzaren erakundeak bultzatzea aldez aurreko ikaskuntzaren aitortzarako gaitasunak hobetuz;
- Kualifikazio-esparru nazionalak berrikustea, esparru baten barruko ikaskuntza-ibilbideek aldez aurreko ikaskuntza aitortzea behar bezala ziurtatzen dutela bermatzeko;
- Aitortza profesionalerako borondatezko erakunde eta herrialdeen talde bat ezartzea;
- Langileen mugikortasuna sustatzea, lantaldeak mugikortasun eta nazioartekotzeari buruz dauzkan irizpideak kontuan hartuz;
- Beka eta kredituen eramangarritasuna sustatzea, mugikortasun eta nazioartekotzeari buruzko lantaldearen jarraibideak kontuan hartuz;
- Gure goi-mailako hezkuntza barne-hartzaileago egitea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren dimentsio sozialaren estrategia ezarriz.
- Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren barruan kualifikazioen aitortza automatikoa ziurtatzea, garrantzizko toki-kualifikazioen maila berean;
- Goi-mailako hezkuntzako gure erakundeei EQAR erakundean kalitatea ziurtatzeko erregistratutako kanpo-agentziak behar bezala erabiltzeko aukera ematea, kalitatea ziurtatzeko emaitzetarako akordio nazionalak guztiz errespetatuz.